

[Talaio](#)s-eko abentura hasi genuenean ez genekien zehazki zer ekarriko zigun. Bi urte bete ditugu jada, hasi ginenean zer egin nahi genuen zen gutxi gorabehera genekien bakarra: Tresnak & Garapena, Formazioa & Ahalduntzea, Estrategia & Analisia.

Horretaz gain, hasieratik ere ekonomiarekin harremana zuten gaiak lantzeko helburua ere bagenuen buruan, baina ez genuen bakarrik egin nahi. Horregatik, BakalHau kolektiboaren barnean ematen hasi genituen lehen eztabaidak. Horien ondorioz, Talaio barnean laugarren lerro bat ere irekitzea erabaki genuen.

## Ekonomia & Eraldaketa

Ekonomia sozial eta eraldatzailearen esparruan, ekintzailetasun eta enpresa eredu berriak sortzen, saretzen eta hedatzen laguntzen dugu.

Orain, proiektu, eztabaida, ekimen ezberdin askotan gaude murgilduta eta ez garrantzitsuena, ez gaude bakarrik! Azkenak aipatzearen, [Kooperatzen](#) Enpresa kooperatiboak sortzeko formakuntza ekimenean eta [OlatuKoop](#) Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea Saretzeko helburua duen sarean.

Azken aldiaren ekonomiaren inguruko informazio uholde guzti horretatik jasotako erreferentzia interesgarri batzuk partekatu nahi dizkizuet komunikazio honen bidez. Koherentzia askorik ez duzue aurkituko beraien artean, ez bilatu! Eztabaidak hauspotzeko helburua duten materialak dira guztiak, denak gomendagarriak.

- [No local](#) (Greg Sharzer)
- [‘Harrigintza’ berria. Apunteak hazkunde-osteko euskal herrigintzaz](#) (Joseba Azkarraga Etxagibel).
- [Jakin 203: Parte hartzea eta herrigintza: paradigma berri baten aurrean ote gaude?](#) (hainbat)
- [Komunismo banatua](#) (BakalHau).
- [Sharing economy, economía directa, producción p2p... ¡¡Qué lío!!](#) (Las Indias Electronicas).
- [Devenir Pachamama del Conocimiento - FLOK Society Design Process+ Summit](#) (Xabier E. Barandiaran, Daniel Vazquez).
- [Economía solidària per a una Catalunya lliure](#) (Jordi Garcia Jané, Jordi Via Llop, Jordi Estivill Pascual, Jordi Valls Olivé ).
- [Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate](#) (Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Luis Guridi Aldanondo).
- [Plan para una década cooperativa](#) (ACI).

Irudia: “[Regel van Sarrus](#)” by [Silver Spoon](#) – Own work. Licensed under [CC BY-SA 3.0](#) via [Wikimedia Commons](#).

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)